

ATANASIO JAUREGI

Doinua: "Iparragirre abila dela"

1

Ez ete dago gizon zuzenik?
pentsatzen jartzen naz sarri,
lapur, gaiztoak ugari dira
ez da zetan bila jarri.
Gaiztoak eta onak
bitariko gizonak...
Nor zer dan zelan igarri?
Atanasio Jauregi gura
deutsuet hona ekarri.

2

Larrabetzuko herrian jaio
eta kristau lez hazia,
gaztetxo zala sentidu eban
goiko deiaren grazia.
Bihotzean su ta gar
mahastira doa azkar,
gogoz jokatzuz bizia.
Aberastu eta edertu eban
Pasiotar errazia.

3

Burua argi, bihotza bero
igarri eutsoen azkar,
giza-laguntza urria baina
Jainkoa dau bere indar.
Amazonas aldean
luze ta zabalean,
entzunaz bakarrik dardar...
Jesusek eta Atanasiok
biak behar dabe alkar.

4

Uste baino lehen egin behar dau
maisu, abade, mediku...
basoko unibertsitatean
egiten da apezpiku.
Zerra, ladrilutegi
martxan jarri ta segi,
aurrera busti nahiz siku.
Zer eta zenbat han egin dauan
Jauna bakarrik testigu.

5

Han eta hemen jaso ebazan
hainbat sari ta domina
Atanasiok barruan eukan
jaungoikozko eragina.
Jarraituaz Jesusi
gizakia nagusi,
aingeruzko zeregina...
Pobreen bidez aintza Aitari;
hau da Jesusen dotrina.

6

Amazonas-ko misinogintzan
aurten da Mendeurrena,
guk eskerronez ospatu daigun
Misinoen garaipena.
Jesusen esanera
jo itsas zabalera,
hori da hori kemena!
Atanasio, zorionak ta
gora gaur zure izena

A. Martzel